

# 3D maparik zaharrena?



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**B**retainia mendebaldea, duela 3.900-3.650 urte. Brontze Aro hasieran Finisterre inguruan bizi ziren gizakiek hainbat lerro, zirkulu eta irudi grabatu zituzten bi metro luze eta metro eta erdi zabal den lauza batean. Harri grabatua, egun Saint-Bélec lauza esaten zaiona, hilobi batean ehortzi zuten gero.

1900. urtean, Paul du Chatellier arkeologoak harrizarra aurkitu zuen, inguru haietako nekropolian indusketa lanetan ari zela. Grabatua tumulutik atera eta Kernuz gazteluan (Pont-L'Abbé) zeukan museotxoan ikusgai ipini zuen. Chatellierren jakin-mina piztu zuten zirrimarra haiek, baina ez zuen jakin horiek interpretatzen: "Kopaz, zirkuluz eta irudiz jositako monumentu bitxi hau deskribatzea zaila da. Ez gaitzala fantasiak engainatu, utz diezaiogun agian egun batean azalduko den Champolion bati gure ordezkari irakur dezan".

1911n, Chatellier hil zenean, familiak bilduma osoa (Saint-Bélec lauza barne) Saint-Germain-en-Laye-ko Arkeologia Museo Nazionalari saldu zion. Museoko sotoan ahaztuta egon zen harlauza mende osoan, 2014an berriro aurkitu zuten arte. Britainia Mendebaldeko Unibertsitateko Yvan Pailler eta Bournemoutheko Unibertsitateko Clément Nicolas arkeologoak arduratu dira objektua ikertzeaz. Harria digitalizatu dute eta gizakiak egingadako marka eta aldaketa guztiak xehe aztertu. Marraz lotutako motiboengatik, mapa bat izan zitekeela pentsatu zuten hasieratik. Gero ikusi zuten harriaren er-



Saint-Bélec lauza identifikatutako eremu baten maparik zaharrena izan daiteke.

liebe naturala ere aldatu zutela kartografo aitzindari haiek, eremu erreale baten orografia adierazteko. Beraz, Saint-Bélec hiru dimentsiotako mapa litzateke.

Eta, azkenik, mapak Britainiako zer eremu jakin jasotzen duen ere ondorioztatu dute: Odet ibaiaren bailarako 13 kilometroko tartea. Coadriko muinoak, Mendi Beltzak eta Landulan mendigunea identifikatu daitezke harrian, lerroek ibai-sarea adierazten dute, eta hainbat marka bat datoz Brontze Aroko eraikinen, tumuluen edo bideen arrastoekin. Geolokalizazioaren bidez ondorioztatu dute mapak %80ko zehaztasunez irudikatzen duela ingurua. Antzeko hainbat pieza aurkitu dira munduan, baina orain

arte ez da lortu beste mapa horiek nongo erliebea irudikatzen duten jakitea. Clément Nicolasek dioenez, "identifikatutako lurralde baten maparik zaharrena izan daiteke".

Arkeologoek ez dakite zergatik egin zuten mapa, ezta hilobi batean zergatik ehortzi zuten ere. Agian lurralde hartako agintariak enkargatu zuten lana, lurraldearen jabetza berresteko-edo, eta leinuko buruzagi bat hil zenean harekin batera ehortzea erabakiko zuten. Edo agian harria grabatu zuen artista bere obrarekin batera ehortzi. Clément Nicolasek gauza bat dauka argi: "Iraganeko jendartearen ezagutza geografikoa gutxiesteko joera daukagu". ●

## Erromatar eliteen kluba

Ingalaterra iparraldean, Scarborough hirian, arkeologoek villa erromatar berezia aurkitu dute. Egitura zirkularra du erdian eta handik beste egoitza batzuetarako sarbidea: termak, gurtza gunea... Luxuzko eraikina ez zen inoren bizitoki, baina publikoa ere ez zen. Hala, adituen ustez erduko eliteentzako kluba zela.

Halako beste egiturarik ez da orain arte aurkitu, ez Ingalaterran ezta Erromatar Inperioaren gainerako lurraldeetan ere. Horregatik, Keith Emerick Historic England erakundeko antzinako monumentuen inspektorearen hitzetan, "azken hamarkadako erromatar aurkikuntza garrantzitsuenetakoa dela esango nuke". ●



MAP ARCHEOLOGICAL PRACTICE

DENISE GLIKSMAN